



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteazkena  
2010-10-06

VIII. URTEA 2.092. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## Anoetako hirugarren Euskal Jaiaren protagonista ardia izango da

**KULTURA** Udalak eta herritarrek egun osoko festa antolatu dute igandean, 09:30etik aurrera

**BERTAKO PRODUKTUAK** Erosketak egiteko etxetik poltsa eramatea eskatu dute Jaiaren aurkezpen ekitaldian 6



Igandean baserritarrez jantzita joatea eskatu diete herritarrei eta ingurukoiei antolatzaileek; oraindik bazkarirako txartelak salgai aurkitzen dira herriko tabernetan. ENERITZ MAIZ

## BERAZUBIKO JAIAK BERRIKUNTZEKIN ETORRIKO DIRA

**TOLOSA** Hilaren 8an, etzi, botako dute txupinazoa auzotarrek; aurtengoan danborrada berreskuratzea erabaki dute eta larunbatean irtengo dira danborrekin kalera, 00:00etan; ohiko txapelketek ere ez dute hutsik egingo 2

## Tolosako Zerkausian azokak ez du etenik

**EKONOMIA** Larunbatetan bezala, astean zehar ere baserritarrak bertan egoten dira, garaian garaiko produktu freskoak eskainiz 5

**Tolosa** » Larunbat gauerdian izango da; horrez gain, txapelketak, kontzertuak eta zezentxoak izango dira, besteak beste.

**INIGO TERRADILLOS**

Azken prestaketetan dihardute Berazubi auzoan. Etzi arratsaldean auzoko jaien hasiera iragarriko duen txupinazoa botako dute, eta ordurako guztia prest eduki nahi dute. Astearte bitarte egitarau osatua antolatu dute, erroturik dauden ekitaldiekin, eta baita berrikuntza garrantzitsuekin ere.

Nabarmendu beharrekoen artean, danborrada aipatu dute antolatzaileek. «Hainbat urtez galduta egon eta gero, aurren berriro egitea erabaki dugu», aipatzen du antolaketaren Unai Olalde. Azken urteetan bezala, bi lokalen artean antolatu dituzte festak, eta bizilagunak ere gehitu zaizkie. «Hain zuzen ere, bizilagunen ideia izan zen larunbat gauerdian Berazubi-ko aspaldiko ohitura berreskuratzeara». Tradizioari jarraituz, galtza eta blusa zuriz jantzita irtegaro dira egungo eta lehengo auzotarrak danborrak astinduz.

**Babarrun jatea eta zezentxoak**

Erroturik dagoen ekitaldietakobababarrun jatea dugu. Astearte eguerdian izango da auzoko Herrialde eta Botarri jatetxeen artean prestatutako bazkaria dastatzeko

# Danborrada errekuiperatuko dute aurtengo Berazubi auzoko jaietan

aukera, eta ohi bezala, jende ugariak parte hartzea espero dute. Bertarako txartelak auzoko tabernetan eskuratu ahaliko dira, eta bihar izango da azken eguna.

Bestalde, Peña Frascueloren parte-hartzea ere azpimarratu dute antolatzaileek: «Euren ekimenez, zezentxoak jarriko dituzte astelehen arratsaldean gaztetxoen zat, beraz, eskertzekoa da».

**Txapelketak eta bertako musikariak**

Berazubiko jaietan hutsik egin ezin duten osagaiak txapelketak dira. Aurtengoan lau behintzat izango dituzte: toka, patata tortilla, mus eta paella txapelketa, hain zuzen.

Horrez gain, gauero musika izango da protagonista auzoan, eta taldeak aukeratzeko orduan azken urteetako biderei jarraitu diote: «Herriarrek egindako festak dira herriarrei zuzenduak, eta horregatik herriko musika taldeak aukeratu ohi ditugu beti», azaltzen du Olalde.

Osagai guztiak dituzte, beraz, Berazubi auzoko jaiak, bertako nahiz kanpokoek parte hartuz parandarako giro polita sortzeko.



Ume jolasek aurren ere lekua izango dute Berazubi auzoko jaietan. N.L.

**» EGITARAUA****Urriak 8, ostirala**

- 18:30. Txupinazoa eta ondoren, bertsopoteoa.
- 20:00. Bertso afaria.
- 23:30. Kontzertuak: Switch, Yucatan eta Peachy Joke.
- 01:00. Elektronuclearfusiosioa Puntzakarekin.

**Urriak 9, larunbata**

- 12:00. Patata Tortilla Lehiaketa eta ardo dastaketa.

- 14:00. Paella Txapelketa.
- 16:00. Mus Txapelketa.
- 16:30. Ume jolasak.
- 00:00. Danborrada.
- 00:30. Disko Festa.
- 02:00. DJ Txozna.
- 06:00. Txokolatada.

**Urriak 10, igandea**

- 09:15. Txistulariak.
- 20:15. Zahagi sagardoa.
- 23:00. Disko Festa.

- 00:30. Zurrumurru digitala Puntzakarekin.

**Urriak 11, astelehena**

- 17:30. Zezentxoak zezen-plazan Peña Frascueloren partetik.

**Urriak 12, asteartea**

- 08:00. Meza.
- 09:15. Txistulariak.
- 14:00. Babarrun jatea.
- 17:00. Toka txapelketa.



## Oinezkoek dute orain lehentasuna

**BERASTEGI** » Herriko plazarako sarrubidea aldatu berri dute. Foru Al-  
dunia izan da zonalde horretako  
segurtasuna hobetzea helburu du-  
ten obrak egitearen arduraduna.  
Hain zuzen ere, garaiera altuko pa-  
sabidea eta galtzada-harria jarri  
dute eremu horretan. Aitor Lizar-  
tza Berastegiko alkateak azaltzen  
duenez, «aldaketa honekin oinez-  
koei lehentasuna ematea lortu  
nahi dugu, eta modu horretan au-  
toak mantoago igarotzea, izan  
ere, zonalde hori beti izan da arris-  
kutsu samarra». JONE GOROSTARZU

**■ Laburrak****'Ospitalekoak' liburuaran inguruan ariko dira bihar**

**TOLOSA** » Galtzaundi Euskara Tal-  
deko Irakurle Taldea Mikel Antza-  
ren *Ospitalekoak* liburua ariko da  
biharko saioan. Kultur Etxean el-  
kartuko dira parte-hartzaileak, le-  
henengo solairuan, 19:30ean.

**'Izarren argia' filmaren aurrestreinaldia igandean**

**TOLOSA** » Mikel Ruedaren *Izarren  
argia* filmaren aurrestreinaldia  
izango da igandean, Leidor areto-  
an, 19:30ean. Barbara Goenaga al-  
kizar aktoreak parte hartzen duen  
filma jatorrizko bertsioan ikusi  
ahaliko da, euskaraz alegia, eta  
gatzelaniazko azpituluekin.

**Valderejora mendi irteera Alpino Uzturrerekin**

**TOLOSA** » Datorren iganderako, hau  
da, hilaren 17rako, Lalastra-Herran  
mendi irteera antolatu du Alpino  
Uzturre mendi elkarteak. Arabako  
Valderejo parke naturalean koka-  
turiko ibaldia egingo dute beraz,  
Recuenco (1.240 m) eta Vallegrull  
(1.226 m) igoz. Elkartearen (Gudari,  
5) 943 652789 zenbakian edo al-  
pinouzturre@hotmail.com helbide-  
an eman daiteke izena.

**Iragarki laburrak****ALOKAIRUA**

■ **Baseria edo borda.** Baseri edo borda bat alokatuko genuke. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 634 45 9110.

**LANA**

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuak deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxe-garbitzailea.** Neska arduratsua lan bila dabil etxeko lanak egiteko. Interesatuak deitu 629 10 29 38 telefono zenbakira.

**SALGAI**

■ **Plantetako enkofratua Ulma sistema.** Karrerak, zertxak, puntalak, postetako txapak, tableroak saltzen dira. Modu onean. 667 41 88 75.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Inguruko baratzetan ekiloreak ikustea ohikoa da, baina ez Berastegiko Danbolinenean ikus daitezkeen bezain bestekoak; altuenak ia lau metro neurtzen ditu, eta honek ikusmina sortu du.

## Eguzki-lore erraldoiak

### ESTI EZEIZA

**E**guzki-loreak, batzuk, Euskal Herriko hainbat etxe eta baserri izpiritu txarretatik babesteaz arduratzen dira. Hauek gaur egun, sarri asko, apaingarri gisa erabiltzen dira. Baina euskal eguzki-loreaz gain, bada beste bat ere, eta hau, mendian jaio beharrean, inguruko baratzetan landatzen da.

Eguzki-lore edo ekiloreko hostoak bereziki horiak dira eta lorea egunean zehar biratzen da eguzkia aurrez-aurrez edukitzeko. Berastegin ezagun egin da Luis Saizarren baratza, bertan ikusi daitezkeen eguzki-loreengatik. Izan ere, ia lau metro neurtzen dituzte, pipen sorburu diren landare hauek.

## «Ezer ez diet egin, beraiek bakarrik hazi dira horrenbeste»

LUIS SAIZAR › Baserritarra

**Natura** » Auzoko bati hazia eskatuta, lehendabiziko aldiz landatu ditu berastegiarrak aurten eguzkiloreak, baratzen.

### ERREDAKZIOA

Estreinakoz landatu ditu aurten Luis Saizarren, Danbolingo bere baratzen eguzki-loreak. 30 hazi erein zituen etagehienak ohi baino altuagoak atera zaizkio. Horren adibide, luzean ia lau metro neurtzen dituela.

**Nolatan landatu dituzu aurten, lehendabiziko aldiz eguzki-loreak?**  
Auzoko batek landatu zituen izan eta horietako hazi bat eskatu nion. Jakin-minagatik eta honek ematen dituen pipengatik erabaki nuen landatzea. Maiatza hasieran bota nuen hazia azkenik.

**Uste al zenuen horrenbesteko altura hartu zezaketela?**

Ez nekien. Esan didatenaren arabera, pertsonen altura berdintsua hartzen dute eguzki-loreak. Orain arte ez dut esperientzia eta eskarmenturik izan landare hauekin, eta berria da niretzat dena.

**Zer eman diezu horren handiak egiteko?**

### Neurri zehatzaren bila

Txakolindegira egindako txangonan, lehiaketa berezi bat ere egin zuten. Bertan, parte-hartzaileek bazkaldar guztiak papertxo baten jarri behar zuten ea Luis Saizarrek, Danbolin ondoko baratzean daukan eguzkiloreetatik handienak zenbat neurtzen zuen. Inork ez zuen asmatu neurri zehatza, baina hurbilen ibili zireen bost lagunei 2011eko Salontzotako herri afarirako afari-txartelak eman zizkieten. Sarituak izan ziren: Iñigo Lizarrriber, Leire Garaiburu, Axier Matxinea, Maritxu Saizar eta Kontxi Azpiroz. Honenbestez, irailaren 2an egindako neurketaren arabera, eguzki-lore altuenak 3,96 metro neurtzen ditu.

Ezer ere ez. Nik pipa hazia bota nuen, eta beraiek bakarrik hazi dira.

### Hazi beharrekoa hazi dira ez?

Bai, orain pixkanaka erortzen ari dira. Buruek pisu handia dute jada eta beheak ari dira erortzen. Gainera, haizeak ere batzuk bota ditu. Pipak ere eginak dituzte eta orain jasotzeko garaia da.

### Beraz, orain, loreak bildu, eta zer egongo duzu beraiekin?

Ganbaran sartuko ditut landareen buruak eta lehortzen utziko ditut. Gero pipak kenduko dizkiet eta zartaginean fijiitu. Ea pipak aprobetxatzea dauzkadan eta onak ateratzen zaizkidan. Bestela berria, gutxienez oiloek jango dituzte.

### Zeresana behintzat sortu dute. Lehiaketa bat ere egin da, hauek direla eta, ezta?

Bai, jendeak uste baino altuagoak egin dira, eta zeresana sortu dute. Txakolindegira joan ginenean lehiaketa txo bat ere egin zuten bertaratu zirenen artean, bitxikeria moduan.

### Datorren urtean berriro landatuko al dituzu?

Pipak onak ateratzen badira bai, baina bestela ez dut uste. Aprobetxatu daitezkeen bakarrik landatu behar da baratzean.



Berastegiko Danbolingo baratzen, Luis Saizar ia lau metroko eguzkiloreak ondoan dituela. HITZA



## Festetan parte hartzearen truke egun pasa

**AISIA** » Irailaren 11n Berastegiko Salontzotan, era batera edo bestera parte hartu zuten herritarrak, Udalak gonbidatuta txakolindegira joan ziren. Denera, 65 lagun joan ziren egun pasara autobusez. Hala, hasteko, Getariko Txomin Etxaniz txakolindegia bisitatu zuten eta bertako txakolina egiteko prozesua ikusi. Ondoren, hamaitakoa egin zuten bertan, txakolina probatuz. Azkenik, Oriora joan ziren bazkaltzera. HITZA

## EUSKAL EGUZKI-LOREAREN KONDAIRA

Orain dela milaka eta milaka urte, gizonak munduan zehar zabalitzen hasi zirenean, ez zen ez eguzkirik ez ilargirik. Gizonak eta emakumeak ilunpetan bizi zirenenak, suzko zezenen, zaldi hegalarren edo herensuge erraldoen itxura hartuta lurraren errailetatik ateratzen ziren mamuek izuturik.

Gizakiek, lurrari laguntza eskatzea deliberatu zuten, etsimen hartan.

-Amalur, lur ama-erregutu zioten-, arren eskatzen dizugu, babes gaitzazu hondatu behar gaituzten arriskuetatik. Lurra lanpeturik zebilen erabat, eta ez zien jaramonik egin gizakiei; haiek, ordea, ez zuten atertzen, eskatu eta eskatuta, eta azkenean gogoan hartu zuten eskatzen ziotena.

-Laguntzeko eskatzen didazue, seme alaba nireak-esan zien-, eta lagunduko dizuet. Izaki argitsu bat sortuko dut, eta ilargi deituko diozue.

Eta lurrak ilargia sortu zuen. Hasieran izu-izuturik zeuden horrekin gizakiak, eta beren haitzuloetan gordeta, handik irteten ausartzen ez zirela, baina berehala ohitu ziren haren argitan ibiltzen. Gizakiak bezala, jeinuak eta sorginak ere oso izutu ziren zeruan argizko gauza hura ikusten hasi zirenean, baina haiek ere ohitu egin ziren, eta berehala hasi ziren haiek ere beren leizeetatik irteten eta gizakiei erasotzen.

Berriro joan zitzaizkion gizakiak lurrari erreguka.

-Amalur-esan zioten-, esker guztiak ematen dizkizugu ilargi amandrea eman diguzulako, baina zerbait indartsuagoaren beharra dugu, lurpeko jeinuak ari baitzaizkigu oraindik.

-Ongi da-erantzun zien lurrak, ilargiak baino ere argi gehiago duen izaki bat sortuko dut. Eguzki deituko diozue. Eguzkiak eguna egingo du, eta ilargiak gaua. Eta lurrak eguzkia sortu zuen. Hain zen handia, hain argia eta hain beroa eguzkia, non oso geldiro ohitu behar izan baitzuten gizakiek haren argitara, baina pozgarria izan zen benetan hura, zeren haren beroari eta haren argiari esker landareak eta zuhaitzak hazten hasi baitziren. Mamuek eta sorginek ezin izan zuten, ordea, egunaren argitasunera ohitu, eta harrezkero gauz baizik ez dira ateratzen.

Berriro joan ziren gizakiak lurrengana.

-Amalur-esan zioten-, pozik gaude eta eskerronez ama ilargia eta ama eguzkia eman diguzulako, baina beste zerbait behar dugu oraindik, zeren, nahiz eta egunez den bitartean arazorik izan ez, gaua datorrenean, mamuak beren leizeetatik ateratzen dira eta erasoka hasten baitzaizkigu.

Lurrak abegi honez entzun zituen honetan ere gizakien eskariak.

-Ongi da. Berriro lagunduko dizuet, baina hau izango da azkena. Lore bat sortuko dizuet, gutz ederra, hain ederra ere, non gaueko mamuek ikusten dutenean Eguzkia bera dela usteko baitute, eta bakean utziko zaituzte. Eta lurrak eguzkiaren lorea sortu zuen, eguzki-lore, gaur egunean oraindik gure etxeak mamu gaitzetoetatik, sorginetatik, lamietatik, gaixotasun ekarleetatik, ekaitzetatik eta tximistetatik babesten dituen.

Toti Martinez de Lezearen *Euskal herriko lelendak* liburutik aterata.

## G Gutunak

Aitor Garmendia  
Izagirrearen  
gutunari erantzuna:

28 kanala, Tolosaldeako Telebis-tarekin oso haserre zaudela eta, zuk esandakoari erantzun nahigeanioke. Ez dugu sekula zuen batzordeak antolatutako festei bizkarra emateko inongo intenziorik izan. Kontua da, gure lan estruktura txikia dela, eta abuztuan pertsona bat bakarrik egun erdiz izan dugula lanean eta aurrez udalarekin hartzerata gienuten ekintzak bete-

tzeko ere larri ibili garela. Hala ere, gure txikitasunean, oporraldian lanean aritu den Tolosaldeko komunikabide bakarria izan gara.

Zure kezka ulertzekoa da, eta nolabait huts egin dugula onartu beharrean gaude.

Baina, hau onartuta, esan behar dugu, gainontzeko zuen deialdien berri beti eman dugula eta bitartekoak jarri izan ditugula zuen ekintzak telebistan atera zitezten.

Huts bategatik, lantaldearen profesionaltasuna zalantzan jaritzea gogor xamarra dela iruditu

zaigu. Gertuko komunikabide bat izateko bokazioa dugu eta horretan jarraituko dugu; gure ateak irekita daude aldeko eta baita kontrako iritziak jasotzeko.

Arazo honen berri beste komunikabide baten bitartez jakin beharrik ez zegoen.

Hutsa onartzeko prest gaude eta nahi baduzu, baita elkarrekin berriro gerta ez dadin erremedioa jartzeko ere.

Adeitasunez,  
**Ion Aldanondo Albisu.**  
28 kanala-ko zuzendaria.

## Mus Txapelketa Azkarra azaroan

## ERREDAKZIOA

Tolosako Fronton kafetegia urtero antolatzen duen Mus Txapelketa Azkarra azaroaren 13an izango da. Aurtengoa hamargarren edizioa izango da eta ohi bezala Beotibar pilotalekuan izango da 16:30etik aurrera.

Izena, hala ere, alde zaurretik eman behar da [fronton@jeub.org](mailto:fronton@jeub.org) helbidean edota 943 65 14 70 telefono zenbakian.

Bikote bakoitzak 30 euro ordaindu beharko ditu parte hartzeagatik.

Sariak potoloak izango dira; le-

henengoek 1.200 euro, txapelak eta garaikurrak eskuratuko dituzte, bigarrenen 600 euro eta garaikurrak, hirugarrenen 300 euro, laugarrenen 150 euro eta bosgarren, seigarren, zazpigarren eta zortzigarren egiten dutenek 100 euro.



«Nafarroko Mendaza herrian ateratako 1.200 urteko hiru hankadun arte zaharren» argazki eder hau bidali zuen Esnaolak, baina ez da finalera pasa. XABIER ESNAOLA

Argazki Lehiaketan  
bozkatzeko  
epea zabalik

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa** » Pasa den igandeko egunkarian eta webgunean ikusi ditzakezue finalistak.

## ERREDAKZIOA

XII. HITZA Argazki Lehiaketa ere bukatzean da.

Jada TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAKO epaimahaiak aukeratu ditu jasotako 89 argazkietatik 8 eta orain zure txanda da, harpidedun.

Zortzi argazki finalisten artean gehien gustatzen zaizuna aukeratzeko unea iritsi da. Ostirala bitarte aukeratu ahal izango duzu eta zortzi argazkiak pasa den igandeko egunkarian edota gure webgunean topatuko dituzu.

Argazki finalistetatik gehien gustatzen zaizuna aukeratu eta gerobibide dituzu bozka emateko:

telefono bidez Tolosako egoitzara deituta (943 65 56 95) edota [argazkiak@tolosaldeko-hitza.info](mailto:argazkiak@tolosaldeko-hitza.info) helbidera idatziz. Bietan harpidedun kodea eta gehien gustatzen zaizuna argazkiaren zenbakia eman beharko dituzu (igandeko egunkarian argazki bakoitzarekin batera ikusiko duzu zenbakia eta webgunean berriz, argazkien ordena jarraitu beharko duzu zein zenbaki duen jakiteko).

**HITZAKO produktuen  
sorta zozketatuko dugu**

Hiru argazki finalistek saria jasoko dute, noski, baina baita zuek ere. Parte-hartzaile guztien eta bozka ematen duzuenen artean HITZAKO produktu sorta bat zozketatuko dugu eta.

Hiru argazki irabazleak zeintzuk diren izango duzue honetako egunkarian ezagutuko dituzte eta baita zein den produktu sortaren irabazlea ere.



Irudikatu mundua  
BERRIekin

Egin  
harpidedun  
eta jaso  
ARGAZKI KAMERA  
HAU OPARI.



## Ezaugarriak:

- Kamera digitala, 9 megapixelkoa
- TFT pantaila, 2,4 hazbetekoa
- Irudiaren berretimen ezin hobea, 16 megapixel artekoa, software interpolazioa erabiliz
- Zoom digitala, vs. argazkiak handitzea
- Mugimenduko JPEG bideo formatua
- Mikrofonoa
- SD memoria txartelak onartzen ditu, baita 8 GBkoak ere

Orain, beste arrazoi bat BERRIaren harpidedun izateko.



Ezaugarriak:  
samsung LE 32C450

Telebista 32 hazbeteko pantaila laua du, eta DNI+ irudi prozesadorea, USB 2.0 ataka bat du, HDMI harria eta PC-ko sarrera bat eta eurokonektore bat audio eta bideo konfigurazio guztiekin lotzeko.

Urriaren 15ean,  
telebista hau zotz egingo dugu  
BERRIaren harpidedunen artean,  
Elektraren eskutik.

elektra  
[www.elektragaraiak.com](http://www.elektragaraiak.com)





# Hirugarren urtez jarraian Euskal Jaia ospatuko dute

**Anoeta** » Iganderako egun osoko festa antolatu dute. Bazkarirako txartelak herriko tabernetan erosteko aukera ostiralean amaituko da.

## ENERITZ MAIZ

Udal ordezkari eta zenbait herritarrek atzo aurkeztu zuten igandean ospatuko duten Euskal Jaia. «Euskal Jaia, euskaldunon jaia, Euskal Herriarri jaia» definitu zuten. Kantauriko itsasoaren ertzean kokatzen den zazpi herrialde osaturiko nazio txiki honetako kultura, nortasuna, hizkuntza eta sustraiak indartzeko asmoz antolatu dute.

«Izan zirelako gara» esaldia gogoratu nahi izan zuten: «gure arbasoek utzirik oinordekatzari eutsiko diogu gaur bezalako jaiak antolatuz eta nola ez, lehen sektorea garatuz, zabalduz eta bultzatuz. Gure nekazarien egoera zaila hobetzea beharrezkoa da aurretikoei eginiko lana galdutik dadin eta berriro ere nekazal mundua indartu dadin» azpimarratu zuten.

Eta «garelako izango dira» esanez jarraitu zuten. «Gure oinordekatzari eutsiko diogu, gure herrialdeak jasaten duen etengabeko inposaketak salatuz jarraituko dugu. Egutegi propioak aldarrikatzen, euskal kirolariak antolatzen...». Azken finean, «ondorengok etorkizun oparo bat izateko, euskaldunak garelako aldarrikatzeko».

Horren harira, Euskal Herrian aspalditxoan abiatu zen egitasmoa izanagatik, azken urteetan indarra galtzen joan den ohitura berreskuratu nahi izan dute. Herriko jai,

Aberri egun nahiz gaurko egunean ikurrina balioan zintzilikatzeko deialdia luzatu zuten, «ez baititugu geureak ez diren nortasun ikur inposatuak nahi. Geurea delako jaietan zintzilikatu ikurrina!» esanez amitu zuten.

## » EUSKAL JAIA 2010

### Hilak 10, igandea

■ **09:30.** Herriko txistularien kalejira.

■ **10:00-13:30.** Eskualdeko base-ritar eta artisauen azoka plazan, dultzaineroek alaiturik.

■ **Goizean zehar.** Erakustaldiak: gaztaren prozesua, ardiei ilea moztea eta artilea nola lantzen den ikusteko aukera izango da.

■ **12:00.** Jaiaren aurkezpena: txalaparta, dantzari eta Loatzo Musika eskolako ikasleekin.

■ **Ondoren.** Loatzoko txarangarekin kalejira.

■ **12:30.** Ardo dastaketa.

■ **14:00.** Herri bazkaria frontoian: mondejua eta bildotsa. Bazkalostea dultzaineroek alaituko dute.

■ **17:30.** Artzain txakurren erakustaldia, Argindegiko soroan.

■ **Ondoren.** Talogileak eta Dantza-di taldearekin erromeria plazan.

■ **Oharra.** Baseritarrez jantzia jokatuko deia egin dute eta erosketak egiteko, etxetik poltsa eramateko eskatu dute.



Atzo Arozetxe baserriaren aurrean aurkeztu zuten aurtengo Euskal Jaia. E. MAIZ

## «Bertako produktuak erosiz lehen sektorea bultzatu nahi dugu»

**GORKA OTXOA** » Zinegotzia

**Kultura** » Herriko eta kanpoko postuez gain, artzaintzaren inguruko ekintzak izango dira; gazta egiten, ilea mozten,...



E. MAIZ

## E. MAIZ

Hirugarren urtez jarraian antolatu dute Euskal Jaia. Lan horretan, Gorka Otxoa zinegotzia aritu da herritar talde batekin batera. Dagoeneko guztia prest dute iganderako. Hori bai, guztia prest izanagatik ere bezpera bitartean zerura begira egongo dira. Eurria egingo balu frontoian sartu beharko dute.

**Euskal Jaia antolatzen duzen hirugarren urtea duzue.**

Bai, herrian giroa sortzeko helburuarekin duela hiru urte antolatu guen lehen aldiz.

**Aurtengoan zer izango da?**

ardikia izango da nagusi. Aurreko urteetan txekorra jarri izan genuen, eta aurtengoan mondejua eta arkumea izango ditugu.

**Zer nolako erantzuna jaso izan duzue herritarren aldetik?**

Polita izaten da sortzen den giroa. Eta jendearen erantzuna ikusita gustura eta animatuta urtero antolatzeko eta lanean aritzeko. Eguraldiak ere asko baldintzatzen du baina jendea azokara etortzen da eta bertako produktuak erosten ditu eta helburuetako bat hori da, bertako produktuak erosiz, lehen sektoreari bultzadaxo bat ematea.

**Zer esan herritarrei?**

Euskal Jaia izanik, gure euskal nortasuna eta lurraldetasuna adierazteko festa bat dela. Eta antolatzailen aldetik, herritar eta ingurukoei gerturatzeko eta ondo pasatzeko esatea baino ez zaigu geratzen.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak urteurrenak eskertzak

**HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

## Txontxo ludotekan izena emateko epea luzatu dute «haur faltagatik»

**Ibarra** » Zerbitzua etetea aztertzen ari da Udala; hau ekiditeko matrikulazio epea berriz irekitzea erabaki dute.

### ERREDAKZIOA

Udalak jakitera eman duenez, «Txontxo Udal Ludotekak egoera zaila bizi du». 2010-2011 ikasturterako matrikulazio epea amaitu den honetan, sei dira ludotekan izena eman duten neska-mutilak. Horregatik, zerbitzua bertan behera uzteko aukera aztertzen ari dira Udala eta Uzturpe Ikastola, Ludotekaren kudeatzailea.

Horren aurretik, kontuan hartuta azken 10 urteetan eskaintako zerbitzua eta egindako esfortzua, nahiz lokal berria egokitzeko egindako inbertsioa, Udalak eta Ikastolak matrikula epea berriro irekitzea erabakia dute.

Izena emateko epea etzira arte egongo da zabalik. Bestalde, argitu dutenez, ikasturte osorako matrikula izango da aurtengo aukerabakarra. Dena den, Eguberri eta Aste Santuko zerbitzu bereziak ere eskaintzeko asmoa adierazi dute. Honenbestez, bideragarritasuna ziurtatzeko, egun edo aste solteetako aukerarik ez dute emango.

Interesa duenak Txontxo Udal Ludotekan eman dezake izena 16:30etik 19:30era Azkue kaleko 9. zena bakan dagoen tokian. Era berean, edozein zalantza argitze-ko, Uzturpe Ikastolara dei dezakete interesatuek (943 671 299).



Bertsolaritza transmititzeko bide dira Leitzakoa bezalako bertso eskolak. A. I.

## Bertso eskola berriz lanean hasteko, bilera egingo dute bihar

**Leitza** » Ikasturte berria hasteko, aurkezpen bilkura deitu dute inguruko bertsozaleentzat; Aurrera elkartean izango da hau.

### ERREDAKZIOA

Bertso eskolakoak hasi dira ikasturte berria prestatzen. Hori dela eta, hau ongi antolatzeko, bilerara deitu dute. Bilkura bihar iluntzean izango da 19:30ean, Aurrera elkartean.

Bilera ondorengoei dago zuzendua: «edozein bertsozaleri, bat-batean trebatu nahi duenari edo bertsoaren barrunbeak ezagutu nahi dituenari». • Bertaratzen den jende kopuruaren arabera finkatuko

dituzte asteko zein egun eta ordu-tan bilduko diren ikasturtean berriz.

Eskoletan, besteak beste, ondorengo gaiak jorratuko dituzte eta ekintzak burutu. Alde batetik, gaurko bertsozaleen jarraipena eginez, ariketa praktikoak egingo dituzte. Bestetik, Iparraldeko, Bizkaiko eta Nafarroako txapelketetako bertsoen azterketak burutuko dituzte. Honez gain, doinu eta bertso-sorta berrien ezagutza landuko dute, baita, bertso idazkiak eta bat-bateko saioak ere.

Oraingo honetan ere, Joxema Leitza izango da taldearen gidari. Bera ariko da irakasle lanetan. Nafarroako Bertsozale Elkartearen zuzendaritzako kide da bera, idazkari lanetan aritzen da.

## Eskualdeko pilotariak irabaziz ekin diote

**Pilota** » Pauen jokatzeko ari diren Munduko Txapelketan ari dira lehian; lehen jardunaldiak irabazi dituzte.

### ERREDAKZIOA

XVI. Munduko Euskal Pilota Txapelketa ari da jokatzeko egun hauetan, Pauen (Frantzia). Lehen jardunaldiak jokatu dira, eta eskualdekoek emaitza oso onak lortu dituzte.

Nesketan, Itxaso Urkizu berastegiarrak eta bere bikote Maite Ruiz de Larramendik Frantziako selekzioarekin jokatzeko bilerak lapurtarra izan zuten aurkari. Trinketeko gomazko paleta modalitatean ari dira jokatzeko bilerak, eta 30-27ko emaitzarekin irabazi zuten lehen partida. Norvegiagokoa oso lehiatua izan zen.

Zortziko berdinketarekin hasi zuten lehia, baina denbora gutxian, bikote lapurtarrak, beraien joko sendoari esker, aurre hartzea lortu zuten, eta markagailua 19-23an jarri. Hortik aurrera, kantxan egonkortu ziren eskualdekoak eta akats gutxiago egin zituzten. Azkenik, 24ko berdinketara iritsi ziren. Ondoren, 26-28koa etorri zen, eta azkenik, 27-30, garaipena. Lehen garaipen honetan, Urkizu nabarmendu zen akats gutxi egin baitzuten, eta hau, oso garrantzitsua da modalitate honetan.

### Eskuz, banakakoan ere ongi

Eskualdeko gainontzekoei dago-kionean, Unai Arozenak ere jokatzeko aukera izan du. Eskuz banakako ari da parte hartzen, Tolosan bizi den venezuelarra. Honek, aisa, 40-6ko emaitzarekin irabazi zion Italiako aurkariari Olorongo trinketean.



Itxaso Urkizu eta Maite Ruiz de Larramendi. HITZA



## Euskal Herria eguna argazkitan

**IBARRA** » Benito Izagirre kultur etxean ikusgai dira egun hauetan Lizarran ospatutako Euskal Herria eguneko argazkiak. Bi herrien arteko senidetza burutu zen bertan. Ibarrik ehun lagun inguru joan ziren Nafarroara eta egun guztiko festa antolatu zuten. Jaialdia, argazkitan irudikatu zuten, eta orain hauek jen-

daurrean jarri dituzte. Hilaren 18ra arte egongo da zabalik erakusketa. Gainera, ikusgai dauden argazkien kopiak erosteko aukera ere badago. Horretarako, interesatuek Kultur Etxeko areto nagusian dagoen zerrendan izena eman beharko dute, eta bakoitzagatik bi euro ordaindu. E. EZEIZA

*Euskal Herria Mitologia*  
LIBURUA: 25€  
DVDa: 15€  
Liburua + DVDa: 30€

Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:  
943-30 43 45  
harpidetza@berria.info

Aukera ezazu, **BIZI** euskaraz **berria**





21°  
15°

GOIZA	EGUZKIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	23°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Deialdiak

- **Tolosa.** Gourgs Blancs eta Grand Quayrat (Pirinioak) mendi irteera antolatuta du Oargi mendi elkar-teak urriaren 15etik 17ra. Izen-ematea, elkartean (Santa Maria 4, 943 67 56 12, 688 69 86 42, www.oargi.org).
- **Tolosa.** Harizpe jubilatuta elkar-teak irteera antolatuta du Lizarrara azaroaren 24ean, Los Arcoseko abiadura zirkuitua bisitatuz. Izen-ematea, elkartean.
- **Tolosa.** Abesbatza Lehiaketako abonoak salgai CIT-TEEn (943 650414).
- **Villabona.** Burdina kultur taldekoek auzolandegia antolatuta dute larunbaterako, hilaren 9rako, Amasan aurkitzen diren Busturi Azpi eta Floreaga karobiak berreskuratzeko. Interesatuak 699 487683 telefono zenbakira deitzea besterik ez dute.
- **Villabona.** Urriaren 30etik azaroaren 13ra, Benidormera bidaia antolatuta du Biltoki jubilatuta elkar-teak. Izen-ematea, Txermingo egoitzan asteartetik ostiralera, 11:00etatik 12:30era.

### Erakusketa

- **Tolosa.** Inestable GKO Galeriaran eskutik ikusgai, Aranburu Jauregian.
- **Tolosa.** Ertza erakusketa GKO Galerian ikusgai.
- **Tolosa.** 2011ko egutegiko Argazki Lehiaketan parte hartu dutenen erakusketa dago ikusgai Aranburu jauregian.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Iraola, 10. 943 67 24 38.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Arraldeko herritarrak gurean dira berriro ere

**TOLOSA** • Europako telebistako telesairik luzeena denak, *Goenkalek*, 17. denboraldiari ekin berri dio. Arraldeko bizilagunen gora-beherak kontatzen dituzte bertan, eta asmatu-rik kostako herri hori irudikatzen azken hiru denboralditan Tolosa erabili dute. Hain zuzen ere, 2007ko otsailean hasi ziren Zerkausian, Trianguloan edota Plaza Zaharrean grabatzen, eta ordutik asteartero errepikatu dute jarduna, tolosarrak paisaia berezi horrekin dagoeneko ohitu ere egin direlarik. i.t.

## A Agurrak



### Zorionak!

**Santos eta Teresa (Tolosa).** Elkarrekin 50 urte. Egun ona pasa eta muxu potolo bat familiaren partetik.



### Urte askoan!

Zorionak attona eta amona. 50 muxu potolo zuen biloben partetik: Naiara, Eider eta Zuriñe.



### bi sarrera pare

#### Los Golden en Blanco y Negro antzezlanerako

Urriak 8 • Ostirala • 20:30etan  
Tolosako Leidor Antzokian



### sarrerak

### sarrera pare bat

#### LAGUN ARO GBC CAJASOL

saskibalo partidarako

Urriak 10 • Igandea • 18:00ean Illunben



sarrerak eskuratzeko deitu **943-65 56 95** telefono zenbakira

harpidedun  
**TXOKA hitza**